# LEIHOTIK BEGIRA

Paul leihotik begira zegoen. Txano urdina eta kolore bereko jertsea zituen jantzita.
Ekaitza zegoen. Kanpoaldean, hodei gris handiek estaltzen zuten zerua. Euria ari zuen. Hiru tximista horik marraztu zuten zerua. Haizeak indartsu astintzen zituen hostoak, eta hosto bat leihoko kristalean itsatsita utzi zuen.

Paulek txori bat ikusi zuen leihoaren koshan, aterpe bila zebilen segur aski. Leihoa ireki zuen txoria sartzeko, eta txoria barruan gelditu zen gustura. Zein gela goxoa! Epel - epel egoten zen jostailuz betetako logela hartan.

1- Non zegoen Paul?

2- Nondik begira zegoen Paul?

3- Zer koloretako jertsea zeraman jantzita?

4- Zer gertatzen ari zen kanpoaldean?

5- Nortzuk estaltzen zuten zerua?

6- Zer geratu zen itsatsita leihoko kristalean?

LIVEWORKSHEETS

7- Zer animalia ikusi zuen Paulek?

8- Zer egin zion Paulek txoriari?

9- Nola egoten zen Paulen logelan?

10- Nola zegoen Paulen gela?

LIVEWORKSHEETS